

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure app-ari ekiteko ezinbestekoak diren baliabideak edukiko ditugu, gure proiektuak arrakasta izateko eta porrota ekiditeko. Errekurtso hauek tankera ezberdinekoak izango dira, fisikoak, finantziarioak eta intelektualak.

Hasteko, baliabide finantzarioei ekingo diegu. Proiektu honek, beste guztiak bezala dirua behar du hasierako kostuak ordaintzeko eta gure app-a gauzatzeko. Gure ustez kapitala lortzeko modurik praktikoenak, gure aurrezkiekin eta bankutik eskatutako maileguak dira. Funtsezko elkartean atalean esan dugun bezala, BBVA-rekin elkartuko gara, beraz alderdi horretatik ez dugu arazorik izango, mailegua itzultzeko epea betetzen dugun bitartean.



Baliabide intelektualei dagokienez, programatzaile bat beharko dugu, app-a programatu eta mantentze-lanak egin ditzan. Horrez gain, guk baditugu erabilgarriak izan daitezkeen ezagutzak: Martinek, abilezia handia du zenbakiekin, taulekin, eta diru kontuekin. Ferdawsek sormen handia du, eta diseinatzeko grina du. Irunek, taktua du eta gendearekin gmailez hitz egiteko abilezia du, eta Aiurrek beti begiratzen du etorkizunera eta aplikazioarentzat funtzio berrien hainbat ideia ditu.

Baliabide fisikoei helduz, lokal bat beharko dugu, WiFi konexioarekin eta lan egiteko egoera aproposan. Hau, UGGASAK ahalbidetuko digu. Gainera, ordenagailuak, lan mahaiak eta lanerako aulkiak erosi beharko ditugu, hasiera batean. Gero, gure beharren arabera gauza gehiago erosi ditzakegu, telefonoak, adibidez. Gure ustez komentatu ditugun baliabideak ezinbestekoak dira dugun proiektua garatzeko, horregatik jarri ditugu behar beharrezkoak ditugun gauzak lehentasun gisa. Lokala, WiFi konexioa duen toki egoki bat behar dugulako, eta ordenagailuak eta altzariak ezinbestekoak ditugulako lan egiteko.